

«Ezingo nuke hemengo epaileen lana epaitu»

Puerto Ricoko semea da Ricardo Gil. Abokatu ikasia, epaile ari da gaur egun San Juan hiriburuan. Ez da euskal herritarra, baina euskalduna, zertxobait trebatuz gero eskubideak euskaraz irakurriko lizkigukeena. Dio nork bere hizkuntzan epaitua izateko eskubidea duela. Beharrik duenak adi beza.

MIEL A. ELUSTONDO

Argazkiak: Dani Blanco

Ez baita ohikoa, esadazu, faborez, zertan den Euskal Herrian Ricardo Gil puertorricarra, euskaraz hitz egiten duen abokatu eta epailea.

Oporretan, lagunak ditut hemen —Hondarribian eta Aramaion, adibidez—, eta haien aitzakian etorri naiz, hango girotik urrundu eta bestelako bizimodu bat ikustera. Ni, izatez, oso naiz hangoa, puertorricoar petopetoa. Niri galdetu: “Biziko zinateke Euskal Herrian?” eta ezetz erantzun ohi dut. Handik aparte hilabete igaro eta herrimenez naiz. Baina gustatzen zait Euskal Herria, oso pozik eta eroso naiz bertan. Kultura aberatsa du oso. Jendea, berriz, gu puertorricorrok baino itxiagoa da lehenengoan, baina tarte egiten dizuten orduko, primeran, beste edozein tokitan bezala zara, edo are hobeto. Horregatik naiz hemen. Ez dut, haatik, lehenengo bidaia: dozena erdi aldiz izan naiz hemen. Jakina, euskara praktikatzeko aldera ere etortzen naiz.

Hori nuen gogoan. Zer dela-eta ikasi duzu euskaraz?

Eta zergatik ez?

Gure bazterrean jendea amorraturik dago hizkuntza “handiak” ikasten.

Euskaldunak ditut lagunetako batzuk. Duela urte batzuk liburuak bidali zizkidan haietako batek; baita euskal musika ere. Asko gustatu zitzaidan hemengo musika, hangoa ez bezalako da. Dena dela, entzunagatik ere ez nuen ezer ulertzen... Herrialde bateko kulturaz jabetzeko, bestalde, nahitaezkoa duzu bertako hizkuntza ikastea. Egia esan, hona etorri eta ez duzu euskararen beharrik, denek baitakite gaztelaniaz. Praktikan, Euskadin ez dago euskaraz hitz egiten jakin beharrik. Laguneta-

ko batzuk haserretu egingo zaizkit hori esan dudalako, baina egia galanta da. Euskara, hemengo kultura eta mundua azaltzeko modua da. Niri, euskaraz jakiteak —edo ulertzeak—, hainbat ate ireki dizkit. Arestian esan dizudana: hemengoak gu baino itxiagoak dira, baina nahikoa duzu euskaraz hastea, haien maskorra ireki dadin. Horrek azaletik mamira iristeko bidea ematen dizu. Turistak ikusiko ez lituzkeenak ikusteko eta bizitzeko aukera duzu: badator turista, ikusi du Donostia, ikusi du Guggenheim eta badoa! Nik besterik nahi dut... Azpeitiko jaietan izana naiz; Hondarribian, ezteietan; Zarauzko euskal jaietan ere izanda nago... Bestelako perspektiba duzu, ondoren. Edo pintadak irakurrita ere, adibidez, gauza askotaz jabetzen zara. Hemen, izan ere, pintada asko dago eta.

Eta euskaraz ikasten hasi zinen...

Bai. Nik dibertsitatean sinesten dut. Euskara hizkuntza “txikia” bada ere, izateko eskubidea du, ala? Hemengo da, hemen da, eta hemen izango da, hizkuntzaren alde egiten duen jendea dagoen artean. Puerto Ricon bezala. Jakina, espainola hizkuntza zabalduagoa da, indartsuagoa, ez du galtzeko arriskurik. Baina izan zen uhartean ingelesa bazter guztietarai-

Nortasun agiria

Ricardo Gil Marrero (San Juan de Puerto Rico, 1977). Abokatu ikasketak egin, Lehen instantziako epaile da: prozesu kriminalak zuzendu ohi ditu, akusatuen kontrako frogak ikertzea eta beste; diru kobrantzen gaineko kasu zibilak, genero bortizkeria. Dozena urte dira Euskal Herria lehenengoz etorri zenetik, ama eta anaia lagun harturik, oporretan eta “Athletic ikustera”. Ordurako, Internet bidezko harremanetan zen Hondarribiko zenbait lagunekin. Harrezkero Euskal Herrian izan ohi da bi-hiru urterik behin Puerto Ricoko epaile euskalduna.



Ricardo Gil
Marrero

no zabaltzeko ahalegina egin zuenik ere... Hara, hizkuntza batean jaiotzen gara, hizkuntza hartan bizi gara, hartan otoitz egiten dugu. Hemen, euskara izan da hizkuntza hori. Kanpotik etorritakoak hemengoak ulertzeko aukerarik izanez gero, asko irabazten du, giza harremanetan batik bat. Ez, ez da berdin bertako hizkuntza jakitea, edo ez.

Nola ikasi duzu euskaraz Puerto Ricon?

Liburuetatik, eta Internet bidez, *txateatzen*. Eman dezagun: nork edo nork euskaraz bidaltzen zidan mezua, eta nahiz eta nik lau, bost egun behar hura ulertzeko, azkenean dezifratzen nuen eta erantzuten nion. Beti hiztegia ondoan neukala, jakina. Gero, beste zenbait testu lagungarri ere aurkitu nituen. Besteak beste, ingelesez zetorren liburu bat, *Beginner's Basque*. Handik ere ikasi dut...

Eta praktikatu?

Puerto Ricoko euskaldun zenbaitekin, baina gutxi gara, ene ustez. "Gara" ez, "dira", ni ez bainaiz euskalduna. Gutxi dira, hura ez da Txile, ez Argentina, ezta Venezuelako Caracas ere, askoz ere euskaldun gutxiago daude Puerto Ricon. Bazen euskal etxea, elkarte bat, behintzat, Vascos en Puerto Rico izenekoa, baina badira hiru-lau urte oso motel dabilena. Oso ekintza gutxi egiten dituzte, elkartu ere, San Inazio eguna ospatzeko, Gabonetan... Kontua da kideak zahartzen ari direla -haseurretuko zaizkit, entzuten badidate-, baina hala da, egia da, eta belaunaldi berririk ez dago: gazteek ez dute interesik. Inoiz edo behin, jan, musika pixka bat entzun, egingo dute. Baina ez hemengo libururik irakurri, ez euskara, ez dantza, ez kirolik... Horrela da, zoritxarrez.

Galtzera egingo du, beraz, hango euskaldunak...

Ene ustez, bai. Baina eztabaidatzeko moduko kontua da. Nik horrela ikusten dut, kanpotik ari banaiz ere. Alabaina, ez hain kanpotik ere, sasoi batean zuzendaritzako kide izan nintzen-eta, bertako idazkari. Han, izan ere, euskal etxeko kide izateko hiru bide dituzu: euskalduna izan, euskaldunen ondokoa, edo interesa behar duzu. Ni, bistan da, hauetakoa naiz: interesa nuen. Euskal etxera iritsi nintzeneko, harremana nuen hemengo euskaldunekin, eta euskaraz ere hasita nengoen. Euskara pixka bat banekienez, oso ondo hartu ninduten euskal etxean.

Gai izango ote zinateke epaiketa euskaraz egiteko?

Ez dut uste... Oraindik ez, behintzat. Baina zertxobait gehiago ikasi eta inori bere eskubideak euskaraz esateko moduan izango nintzateke, hori bai.

Gintuz-ke-ten

"Aditz laguntzailea, horixe da euskarak duen korapilorik zailena! Eta zenbait iragan... *Gintuz-ke-ten*... Zer da hori ordea? Nik nahikoa dut afaria eskatzeko lain izanda.

Oinarrizko maila dut, ez daukat praktika egiteko aukerarik han. Tira, bai, han dira Aramaioko Lasaga, Errasti... Haiekin euskaraz egin dezaket, edo saiatu, behintzat. Baina gutxitan biltzen gara. Haiek bai euskaldunak! Eta, bestalde, betikoa: haiek ez ezik, beraien andreak ere inguruan badira, akabo, gaztelaniaz egiten dugu! Eta hasten gara gaztelaniaz, eta gaztelaniaz segitzen dugu. Hemen bezala. Hemen ere zer da, bada: lau lagun; hiru euskaldun, bat erdalduna, eta, nola hitz egiten dute? Gaztelaniaz".

Hemen ari den epaile askok baino gehiago dakizu euskaraz.

Ez dakit.

Nik bai.

Uste dut nork bere hizkuntzan epaitua izateko eskubidea duela. Guk, Puerto Ricoko epaileok, espainola ez ezik, ingelese ere menderatzen dugu. Epaituek behar izatera, interpreteak ditugu eskura. Ingeles interpreteak, espainolekoak, edo dena delako hizkuntzakoak. Baina epaitua ez dadila han, besterik gabe, jarrita egon, ezer ulertzen ez duela. Dena dela, ez naiz ausartzen hemengo epaitzen. Ezingo nuke hemengo epaileen lana epaitu, nahiz eta iritzia badudan, baina isilik gordeko dut, etika judizialeko eta profesionaleko kanonengatik.

Hemengoaz hitz egiterik ez duzunez, hitz egin dezagun Puerto Ricoz...

Jende jatorra, hangoa, oso irekia. Geografikoki, uhartea paraje zoragarria da, nahiz mendi nahiz itsaso, bertan duzu dena, hurre: oihan tropikala, hondartza zoragarriak, eguraldi gozoa, urte osoan atsegina... Jakina, uhartean bertan, batera jo, aldeia dago. San Juan de Puerto Ricoko zenbait lekutara jo eta lehenengo-lehenengo munduan zaude la esango diozu zeure buruari. Aldiz, beste zenbait leku bazterretara jo eta mundu azpi-garatuan zarela irudituko zaizu. Hezkuntza bera ere ez da kalitate berekoa uharteko leku guztietan. Hala ere, Bigarren Hezkuntza ondoko graduazio maila handienekoa du Puerto Ricok AEBetan. Titulaziodun asko dago gure herrialdean. Besterik da titulazio horren araberako lana duen jendeak. Han esaten dugunez, "hori hoge peso gehiago dira". Beste upela bateko ardoa, gutxi gorabehera, hemen esan ohi duzuenez. Jendeak badu ikasteko aukera, besterik da ikasten duen edo ez. Baina aukera, behintzat, badu.

Zertan da Puerto Rico AEBetako gizartearen isla?

Nik neure iritzia eman besterik ezin dut. Izango dira kontra egingo didatenak, seguru. Eman dezagun, AEBetan armak izatea eskubidea da. Bada, Puerto Ricon ere bai, AEBetako Konstituzioa aplikatzen da eta. Beraz, gurean ezin armak galarazi eta, ondorioz,



arma asko dago kalean, eta kalean arma asko baldin badago, armek eragindako krimenak ere ez dira gutxi... Dena dela, Puerto Ricon ez da AEBetako eskola eta institutueta gertatzen diren tiroketarik izan ohi, jainkoari eskerrak! Eta ez dakigula gerta! Puerto Ricon, droga trafikoari lotutako krimena da gehiena. Hortik bai, hortik asko dugu. Izan ere, Puerto Rico AEBetako aduana sistemaren barruan dagoenez, pasabideko merkatua duzu, zubi bat. Droga Hego Amerikatik dator, AEBetara bidean. Puerto Ricon sartzen baldin bada, sartua da AEBetan. Jakina, Puerto Ricon bertan ere hainbat droga geratzen da, eta horrek ere txarkeria franko eragiten du. Filmetan bezala, esango nuke: alegia, droga trafikoa kontrolatzeko borroka pizten da eta hor dabilta, batzuk eta besteak, elkarri tiroka, elkar hiltzen. Puerto Ricon zenbat hilketa izango dira, bada, urtean? Bederatzehun bat? Horietarik %90 droga trafikoari loturik daude. Ni ez naiz horren kezkatzen bizi, ezta lanean ari den oinezkoa ere. Alegia, gu lasai gabilta kalean. Beraiek dira bata bestea hiltzen dabiltzanak, negozioa kontrolatzeko borrokan, lehian.

Irakurri berri dudanez, etxea etxearen gainean egiten ari dira Puerto Ricon. Erritmo honi jarraiki, hirurogeita hamar urtean uharte-hiria izango omen da...

Borroka handia dago horren inguruan. Batetik, ingurumenzaleak ditugu; bestetik, ekonomia, eraikuntza gure ekonomiaren zutarri baita. Eraikuntzak mugimendu handia eragiten du, enpleguan, eta materialetan.

Osasun sistema

"Puerto Ricon osasun sistema unibertsala zen. Legez, gaixorik dagoenak oinarritzko zaintza izateko eskubidea du, izan zentro publikoan edo pribatuan. Behartuta daude gaixoa zaintzera. Haren egoera egonkortu orduko, dagokion erietxera eramango dute, ospitale pribatura San Juanen, edo dagokion erregioiko gaixoetxera. Jakina, sistema saiatuko da oinarritzko zaintza hori eskaini eta kito egiten, horrela merkeago zaio-eta. Lan egiten duen jendeak, bestalde —erdi mailako gizartea—, kontratatuta du mediku pribatua, eta hori ordaindu egin behar da, 300, 400 dolar hilean. Osasuna negozio handia da".

kazeta.info

HAZTAPENA | Euskaraz | Muntai | Kultura | Nola

Informazio haria

Ipar Euskal Herrian
sorturiko euskal
egunkari digitala

www.kazeta.info

www.kazeta.info

www.kazeta.info

www.kazeta.info

www.kazeta.info

www.kazeta.info

IPARLA KOMUNIKAZIOA elkarteak
Gordubari Garatzen
Hartzena hartzena@kazeta.info

Ekonomia mundu mailako krisiak jo duenean, ezinbestean dator ikamika: “Eta zer egin behar dugu, eraikuntza gerarazi? Zein erataraz garatuko gara? Nola iritsiko gara ozeanoetara?”. Egia da etxe barreiatze handia izan dena. Orain, berriz, beste kontzeptu bat sartu zaigu, *walk up*, “oinez igo” izeneko: lau solairuko etxeak, igogailurik gabeak, gazteentzako eginak, lanean hasi berri direnentzat...

Puerto Rico uharte-hiri martxa honetan...

Puerto Ricok errektangulu itxura dauka. Itsasertza du batetik, eta mendia barnealdean. San Juan ingurua beteta dago. Milioi bat biztanle baino gehiago dira metropolian, eta ez dago besterik eraikitze leku askorik. Hala ere, goiz batean jaiki eta aurreko muinorik ez dago! Etxe saila jasoa dute haren lekuan. Horrela da, egun batetik bestera! Lizentziak eta beste behar dira horretarako, baina eztabaida hor da beti: batzuen ustez, makalegi ari dira eraikitzen, prozesu burokratiko handia igaro behar delako; beste batzuek, inguruaren alde direnek, diote lizentzia eta kontrol guztiak gorabehera, burokrazia astuna gorabehera, azkenean, eraikitze proiektu guztiak onartzen dituztela, baita nola onartu dituzten jakiterik ez dauden proiektuak ere! Etengabeko eztabaida da.

Beste eztabaidagai bat, eta ez txikiena: Puerto Rico Estatu Libre Elkartua da, AEBei lotua...

1952an sortu zen Estatu Libre Elkartua, 1898an estatubatuarrak uhartean sartu ziren eta Puerto Ricoz jabetu ziren. 1951 arte gobernu kolonialak agindu zuen: estatubatuarra zen gobernadore, edo estatubatuarrek ezarria. Urte hartan onartu zen Estatu Libre Elkartua. Ez daukat garbi hitz egiterik, nire lanak galarazten didalako.

AZKEN HITZA

Hogei peso

Eta zenbat dira epaile euskaldunak gurean? Eta bere burua hemengotzat daukaten epaile ezeuskaldunek euskaraz ikasteko borondaterik ez badute, euskaldun ustez gaizkilea euskaraz epaituko digun epailea zertan ez inportatu Puerto Ricotik? Errazago izango da haren titulazioa balioztatzea, ezen hemen hauetan ari den epaile zorrotza euskaraz ikasten jartzea baino. Horretan, bete-betean dator Puerto Ricokoen arrazoia: “Hori hogei peso gehiago dira!”.



Etika judizialeko eta profesionaleko kanonek galarazten dizute.

Bai, hori da. Dena dela, formula hori dago indarrean. Esango nuke puertorricor gehienak ez daudela ados formula horrekin, baina ez dira ados jartzen bestelako bide bat bilatzeko garaian. Mugimendu handi bat bada, Puerto Rico AEBetako estatu izan dadin lanean ari dena. Uste dut 1960tik hona hazi egin dela mugimendu hori, %46 bat-edo iritzi horren aldekoak direla esango nuke. Estatu Libre Elkartuaren aldekoak, berriz, jaitsi egin dira, nahiz eta %48 bat izan litezkeen. Eta, hirugarrenik, independentistak ditugu, %4-5 inguru direnak.

Tendentziak garbi ageri dira.

Kontuz nola interpreta-tzen diren datu horiek, askotan batetik besterako aldaketak gertatzen baitira. Estatu Libre Elkartua izateak aurrekontuetan autonomia izatea esan nahi du, gobernamentu lokala Puerto Ricon bertan izatea. Besterik da nazioarteko harremanei dago-kienean, hori AEBek erabakitzen dute. Horixe

gertatzen da gerra kasuan: Washingtonek erabakitzen du. Gu, azken finean, AEBetako hiritarrak gara. Armada AEBetako da, guk ez dugu hitzik. Gerra denean, armada aktibatzen dute eta kito, han doaz puertorricorak ere. Esaterako, hainbat hil dira Irakoko gerran. Kultur independentzia dugu, olinpiar batzorde berezia... “Bi munduetako onurak”, diote, Estatu Libre Elkartuaren aldekoek. Azkenaldian, hala ere, hori ere aldatzen ari da: joera horren aldekoak soberania handiagoa eskatzekotan dira. Gobernu paraleloa dugu Puerto Ricon, lege federalak ditugu. Washingtoneko kongresuan ere, ordezkari bat dugu, boza bai baina botorik ez duena. ■